

URRETXU ETA ZUMARRAGAKO GABONETAKO XXXVII. IDAZLAN LEHIAKETA 2026

1.- Zumarragan edo Urretxun ikasten duten eskola-umeek har dezakete parte lehiaketa honetan.

2.- Bi talde bereiziko dira: A taldea: LHko 3. eta 4. mailakoak
B taldea: LHko 5. eta 6. mailakoak

3.- Lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkez dezake.

4.- Lanak euskaraz izango dira, eta **gaiak honako hauek:**

A maila: "Esnatu nintzenean, guztia amets bat izan zela konturatu nintzen"

B maila: "Hizkuntza ezberdinak hitzegin arren, elkar ulertu genuen"

5.- Neurri aldetik, arau hauek gorde beharko dira:
A taldean: orrialde bat gehienez
B taldean: bi orrialde gehienez

6.- Lehiaketan parte hartu ahal izateko, idazlana idatzita dagoen orrian barrenean datu hauek azaldu beharko dira: izen-abizenak, ikastetxea, maila, helbidea eta telefonoa.

7.- Idazlanak Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean edo Urretxuko Aizpurunea kultur etxean **aurkeztu beharko dira**, **azaroaren 20a bitartean, hau barne.**

8.- Epaimahaiaren **erabakia 2026ko abenduaren 17an, arratsaldeko 6etan**, Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean ezagutaraziko da, eta ekitaldi berean **sari banaketa** egingo da.

9.- Epaimahaia Zumarraga eta Urretxuko Kultura Batzordeek izendatuko dute.

10.- Sariak honela banatuko dira:
Bi taldeetan: 1. saria: diploma eta opariak
2. saria: diploma eta opariak
3. saria: diploma eta opariak

11.- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta horrela erabakiz gero, sariak eman gabe gera litezke.

12.- Saritutako lanak bi udalen webetan jarriko dira ikusgai.

13.- Sarituek bere lana berreskuratu nahi izanez gero urtarrilaren 31 arte izango dute aukera.